

## M<sup>a</sup> CONCEPCION UGALDE IZETA Bergarako Udaleko Idazkariak

**EGIAZTATZEN DU** Alkateak, 2023ko martxoaren 23an emandako dekretu baten bitartez, Tokiko Gobernu Batzarrak bezperan izandako bileran egindako proposamenak onartu zituela, horietako bat ondorengo hau delarik:

“Marco Segurola Jimenez jaunak (NAN: 72441068-S), “Soraluce S.Coop” enpresaren izenean (IFZ: F-20023057), Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 44. Areako Plan Bereziaren zirriborroa eta dagokion ingurumen-azterlan estrategikoaren dokumentua aurkeztu zituen, ingurumen-organo eskudunak dagokion ingurumen-txosten estrategikoa emateko (2023ko otsailaren 14ko udal erregistro-sarrerarekin).

Bergarako Udalak “Soraluce S.Coop” enpresaren eskutik jasotako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 44. Areako Plan Bereziaren zirriborroa eta dagokion ingurumen-azterlan estrategikoaren dokumentua Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Departamentura igorri zituen otsailaren 16an, ingurumen-organo eskudunak dagokion ingurumen-txosten estrategikoa emateko.

Marco Segurola Jimenez jaunak (NAN: 72441068-S), “Soraluce S.Coop” enpresaren izenean (IFZ: F-20023057), Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 44. Areako Plan Berezia aurkeztu du (2023ko otsailaren 22ko udal erregistro-sarrerarekin).

Udal arkitekto zerbitzuburuaren eta Hirigintzako Administrazio Orokorreko teknikariaren txostenei eta Lurralde Batzordearen proposamenari jarraituz, Tokiko Gobernu Batzarra osatzen duten 6 batzarkideetatik bertaratutako 4rek, aho batez, alkateari ondorengo erabakia hartu dezala proposatzea erabaki dute:

- 1.- A-44 Areako Hiri Antolakuntzako Plan Bereziari hasierako onarpena ematea.
- 2.- Aipatutako onarpena Eusko Jaurlaritzak emango duen ingurumen-txosten estrategikoaren emaitzaren baitan dago; lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 31-3 artikulua xedatutakoaren arabera.
- 3.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 85. artikuluan adierazten duen moduan, plan bereziak finkatzen duen gunean udal baimenak etetea, eremuko plan bereziak behin betiko onarpena jasotzen duen arte edo gehienez urtebeteko epez.
- 4.- Onartutako espedientea (dagokion ingurumen-azterlan estrategikoaren dokumentuarekin batera), Idazkariaren eginbidearen zigituarekin, 20 eguneko epez jendaurrean jartzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 95. eta 97. artikuluetan adierazten duen moduan. Halaber, erabakiari dagozkion iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Lurralde Historikoan gehien irakurtzen den egunkarietako batean argitaratzea. Modu berean, udaleko web-orrian argitaratzea.
- 5.- Sektoreko eskumenak dituzten administrazio publikoei hasierako onarpena eman zaion A-44 Areako Hiri Antolakuntzako Plan Bereziaren dokumentua jakinaraztea, dagokion ingurumen-azterlan estrategikoaren dokumentuarekin eta erabakiarekin batera, ezagutu dezaten eta txostena egin dezaten.
- 6.- Erabakia jakinaraztea Marco Segurola Jimenez jaunari, “Soraluce S.Coop” enpresaren izenean.”

Eta horrela jasota gera dadin, ematen du egiaztapen hau, Bergaran, 2023ko martxoaren 24an.



M<sup>a</sup> CONCEPCION UGALDE IZETA Secretaria del Iltre. Ayuntamiento de Bergara,

**CERTIFICO:** Que el Alcalde, mediante Decreto emitido el 23 de marzo de 2023 aprobó las propuestas efectuadas por la Junta de Gobierno Local en la sesión celebrada la víspera, y que ésta es una de las propuestas aprobadas:

“Don Marco Segurola Jiménez (DNI: 72441068-S), en representación de la empresa “Soraluce S.Coop.” (NIF: F-20023057), con entrada en el registro municipal de 14 de febrero de 2023 presentó el borrador del Plan Especial del Área 44 del Plan General de Ordenación Urbana y el documento del estudio ambiental estratégico correspondiente, al objeto de que por parte del órgano ambiental competente se emitiera el correspondiente informe ambiental estratégico.

El 16 de febrero, el Ayuntamiento de Bergara remitió al Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco el borrador del Plan Especial del Área 44 del Plan General de Ordenación Urbana, recibido desde la empresa Soraluce S.Coop, junto con el documento del estudio ambiental estratégico correspondiente, a fin de que el órgano ambiental competente emitiera el correspondiente informe ambiental estratégico.

Don Marco Segurola Jiménez (DNI: 72441068-S), en representación de la empresa “Soraluce S.Coop.” (NIF: F-20023057), con entrada en el registro municipal de 22 de febrero de 2023 ha presentado el Plan Especial del Área 44 del Plan General de Ordenación Urbana.

De conformidad con los informes de la arquitecta municipal jefa del servicio y del técnico de administración general de urbanismo y con la propuesta de la Comisión de Territorio, los 4 miembros presentes de los 6 que componen la Junta de Gobierno Local han acordado, por unanimidad, proponer al alcalde que adopte la siguiente resolución:

- 1.- Aprobar inicialmente el Plan Especial de Ordenación Urbana del Área A-44.
- 2.- La citada aprobación está condicionada a lo que resulte del informe ambiental estratégico que emitirá el Gobierno Vasco, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 31-3 del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística.
- 3.- Tal y como se establece en el artículo 85 de la Ley 2/2006, de 30 de junio de 2006, de Suelo y Urbanismo, proceder a la suspensión de las licencias municipales para el ámbito establecido en el Plan Especial hasta la aprobación definitiva de dicho plan o, como máximo, por un plazo de un año.
- 4.- Someter a exposición pública el expediente aprobado (junto con el documento del estudio ambiental estratégico correspondiente), diligenciado por Secretaría, durante un plazo de 20 días, tal y como se establece en los artículos 95 y 97 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo. Además, publicar los anuncios relativos a la resolución en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en uno de los periódicos de mayor difusión en el territorio histórico. Así mismo, publicarlo en la página web municipal.
- 5.- Comunicar a las administraciones públicas con competencias sectoriales el documento del Plan Especial de Ordenación Urbana del Área A-44 aprobado inicialmente, junto con la resolución y el correspondiente documento de estudio ambiental estratégico, para su conocimiento y a fin de que elaboren su informe.
- 6.- Dar cuenta de esta resolución a don Marco Segurola Jiménez, en representación de la empresa “Soraluce S.Coop.”.

Y para que así conste donde convenga, expido la presente certificación, en Bergara, a 24 de marzo de 2023.

